

# SARAUBE HERRIAK

*Aiarako Udalaren aldizkari lauhilabetekaria #148*  
*2024ko IRAILA / SEPTIEMBRE*  
*Revista cuatrimestral del Ayuntamiento de Ayala*



## **AIARATEKA ELKARTEA**

LLENADO DEL AGUJERO DEL  
POLIDEPORTIVO DE IBAGUEN

**UDAL IKASTAROAK**

**KUDEA GO!**

**SORLASEAN**

**PROIEKTUA**

## IRITZIA · OPINIÓN

MUGIKORTASUNA ETA  
INGURUMENA  
AIARAKO UDALA

Gure udalerrriaren arazo handienetako bat herritarren mugikortasuna da, lurraldearen barruan, zein kanpoan. Legegintzaldiaren hasieran, Aiarako mugikortasun-plana egin genuen, eta, ondoren, Arabako Foru Aldundira bidali. Gure eskaerei erantzuteko zain, gure proposamenetako bat abian jartzen hasi gara: autoa partekatzea. Udalak aplikazio bat kontratatu du: *Kudea Go!*. Telefono aplikazioa da, deskargatu eta udalerrian dauden garraio guztiei buruzko informazioa ematen du. Autoa partekatzeko aukera eskaintzen du, udalerriko beste pertsona batzuek egiten dituzten bidaiak aprobetxatzea erabakitzen duten erabiltzaileekin bidaiak partekatzeko. Bidaien kopurua murrizteko ahalegina egingo dugu, eta garraio biderik ez duten pertsonen irtenbidea ematen saiatuko gara. Erreferentziazko ospitaleetara, unibertsitatera, ostiral edo larunbatetan itzultzean inguruko herrietara edo tren geltokira joateko erabil daiteke. Aurkezpen publikoa hil honetan izango da.

## INKESTA · ENCUESTA

Aiarako mugikortasunari buruz  
¿Cómo ves la movilidad en Ayala?

JULENE

Gaizki ikusten dut autobus gutxi igarotzen direlako. Hortaz, autoa erabili behar dugu Arespalditzara joateko, adibidez. Bestalde, badugu, bai, tren geltokia.



SANTOS

Está mejor que hace unos años. Hay autobuses en el municipio, aunque es un servicio un poco escaso. También tenemos el tren, aunque hay que usar el coche para cogerlo.



PILI

Nik hau ikusten dut aulki gurpilduna duen jendearen bitartez, nire amagatik, eta garraio publikoa ez dago oso prestatua horrelako mugak dituzten herritarrentzat.



MIKEL

Yo lo veo bien, no tiene menos servicios que otros municipios y hay opciones distintas. Incluso en fiestas se han organizado autobuses para acudir.

## SARAUBE ALDIZKARIA

BIDALI ZURE INFORMAZIOA · ENVÍANOS TU INFORMACIÓN :

Email: [saraubealdizkaria@aiarakoudala.eus](mailto:saraubealdizkaria@aiarakoudala.eus)

Tel: 722 13 43 22 · Publizitatea: 688 62 53 94



## Whatsapp municipal

**Aiarako egunerokotasunaren berri izateko, 290 pertsonen osatzen duten WhatsApp taldera batu: 615 788 146.**

*Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.*

EDITORIALA · EDITORIAL

## KUDEA GO!, USO SOLIDARIO DEL AUTOMÓVIL

A partir de septiembre pondremos en marcha en Aiara *Kudea Go!*, el proyecto de uso solidario del coche particular, una plataforma pública en la que las personas residentes en el municipio puedan contactar para realizar desplazamientos, sea por cuestión de estudios, trabajo, consultas médicas...

Abordar la cuestión del transporte público es complejo en un municipio con gran dispersión geográfica. Este servicio que estrenaremos en septiembre no va a resolver completamente esa complejidad. De hecho, la movilidad en nuestro municipio es un reto que abordaremos tratando de dar distintas respuestas. *Kudea Go!* es un paso en esa dirección al que seguirán otros, conscientes de que la oferta actual de transporte público constituye un gran problema de movilidad para muchas personas de nuestros pueblos.

La puesta en marcha de esta iniciativa va en la línea de disminuir el uso del coche particular y unido a ello el tráfico de vehículos, un paso que se suma a las mejoras en caminos y vías de comunicación entre pueblos, las burbujas que ya están operando en algunos núcleos para el aparcamiento seguro de bicicletas...

En un contexto de crisis climática como la que estamos viviendo, cada paso en la dirección de eliminar la contaminación es fundamental, y ello exige un cambio de mentalidad en el que cada una de nosotras y nosotros tendremos que ir avanzando. El uso solidario del vehículo particular forma parte de esos pequeños cambios que tendremos que introducir en nuestros hábitos, y que podemos experimentar a través de esta plataforma de contacto, una forma de organizar nuestros desplazamientos a la universidad u otro centro de estudios, laboral, de salud o por razón de ocio o compras.



## KUDEA GO!, IBILGAILUAREN ERABILERA SOLIDARIOA

Irailetik aurrera, *Kudea Go!* norberaren autoa solidarioki erabiltzeko proiektua jarriko dugu martxan Aiarako Udalean. Plataforma publiko horretan, udalerrian bizi diren pertsonak harremanetan jarri ahal izango dira beharrezko joan-etorriak egiteko direla medio; ikasketak, lana, kontsulta medikuak... Berez, garraio publikoaren gaiari heltzea konplexua da geografikoki oso sakabanatuta dagoen udalerrizabal batean. Hortaz, irailean estreinatuko dugun zerbitzu honek ez du konplexutasun hori guztiz konponduko. Izan ere, gure udalerriko mugikortasuna erronka bat da, eta erantzun desberdinak ematen saiatuko gara.

Finean, bitarteko hau urrats bat da norabide horretan, eta beste batzuek jarraituko dute, jakinik garraio publikoaren egungo eskaintza mugikortasun-arazo handia dela gure herrietako pertsona askorentzat. Tresna hau abianjartzean auto partikularraren erabilera murriztu nahi da, eta horrekin batera bestelako neurriak hartu ditugu. Adibidez, ibilgailuen trafikoa herrien arteko bide eta komunikazio bideetako hobekuntzak, bizikleten aparkaleku segururako gune batzuetan jada martxan dauden

burbuilak...

Bizi dugun krisi klimatikoaren testuinguruan, funtsezkoa da kutsadura desagerrarazteko urrats bakoitza, eta horrek mentalitate-aldaketa eskatzen du, non gutako bakoitzak aurrera egin beharko duen. Ibilgailu partikularraren erabilera solidarioa bezalako zerbitzuak gure ohituretan sartu beharko ditugun aldaketa txiki horien parte dira, eta autoaren erabilera partekatua planteatzen dugu kontaktu-plataforma honen bidez, unibertsitatera edo beste ikasketa-zentro batera, lantokira, osasun zentrora edo aisialdirako edo erosketetara gure joan-etorriak antolatzeke modu bat.

BERDINTASUNA · IGUALDAD

## Casos de violencia machista atendidos en la Cuadrilla de Ayala durante el año 2023



En el mes de julio, se han realizado las mesas técnicas y políticas comarcales de seguimiento de protocolos contra la violencia machista. En ellas se han recabado datos correspondientes a 2023 y el resultado ha sido que en Servicios Sociales e Igualdad se han atendido, en total, a 71 mujeres, de las que 17 son de Okondo, Ayala y Artziniega. La forma de violencia ejercida mayoritaria ha sido la psicológica, seguida de la física, la económica y la sexual.

El perfil más frecuente es el de mujeres de edades comprendidas entre 30 y 44 años, casadas, en proceso de separación, con menores a su cargo, y la mayoría autóctonas, así como los agresores, que son mayoritariamente autóctonos. El recurso al que más se deriva es a la asistencia psicológica, seguido del jurídico. En cuanto a la Ertzaintza, en 2023 fueron atendidas por la policía 14 mujeres de Aiara, Artziniega y Okondo. Los Servicios Sociales y de Igualdad de la Cuadrilla recuerdan que la denuncia es un derecho y no una obligación. Así pues, para acceder a los recursos de atención no hace falta presentar denuncia y en caso de que se quiera seguir ese camino, han subrayado la importancia de su preparación previa, proporcionando información y acompañamiento en todos los casos

atendidos. De cara al 2025, y con la intención de mejorar la atención de los casos, en los Ayuntamientos de Okondo, Ayala y Artziniega, se seguirá reforzando la intervención pública, poniendo a disposición de las mujeres que enfrentan violencia machista un número de móvil directo, con WhatsApp. Este teléfono funciona de 8:00 a 15:00 y existen también otros recursos activos durante las 24 horas del día, tales como Servicios Sociales de Urgencia y el teléfono de atención especializada. Además, es preciso mencionar que este 2024 se ha puesto en marcha el Centro de Atención a víctimas de violencia sexual Tximeletak en Álava.

### Información técnica de igualdad

De 8:00 a 15:00, lunes a viernes. 686 587 889.

### Servicios sociales de urgencia

24 horas. 945 161 210.

### Teléfono de atención especializada

24 horas. 900 840 111.

### Teléfono de atención de agresiones sexuales Tximeletak

24 horas. 650 80 10 80.

### Urgencias

24 horas. 112.

*Uztailean batu dira indarkeria matxistaren kontrako protokoloei jarraipena egiten dieten eskualdeko mahai tekniko eta politikoak. Bilera horietan landu dituzte 2023ko datuak eta, horien arabera, Gizarte Ongizate eta Berdintasun zerbitzuek 71 emakume artatu dituzte guztira. 17 Okondo, Aiara eta Artziniegakoak dira. Gehien pairatu duten indarkeria psikologikoa izan da, ondoren fisikoa, ekonomikoa eta sexuala. Profil ohikoena 30 eta 44 urte bitarteko emakumeena izan da, ezkonduak, banantze-prozesuan daudenak, eta adingabeak beren kargura dituztenak. Gehienak autoktonoak dira, baita erasotzaileak ere. Gehien bideratzen den baliabidea laguntza psikologikoa da, eta, ondoren, juridikoa. Ertzaintzari dagokionez, 2023an Aiara, Artziniega eta Okondoko 14 emakume artatu zituen poliziak. Administrazioak gogoratu du laguntza eta babesa jasotzeko ez dela ezinbestekoa salaketa egitea, eskubidea baizik. Hau da, ez dela derrigorrezkoa salatzea.*

BERDINTASUNA · IGUALDAD

## LAIA Eskolako egitarau berria



Irailaren 19an, Laudioko Lezeaga Aretoa, 11:00etan, LAIA Aiaraldea 2024-2025 ikasturtea aurkeztuko dute, emakumeentzako Jabekuntza Eskola. Bertan parte hartuko dute udalek, Kuadrillak eta Aldundiak, denen artean gauzatu dutelako aurtengo egitaraua, aurreko urteetako ildoak jarraiki: Feminismoa, Kultura birdefinitzen, Osasuna eta Indarkeria Matxista. Ekintzak Aiaraldeko emakume guztientzat dira eta dohainik dira, denen topaleku izan dadin, emakumeak saretzeko prestakuntza gunea delako, eraldaketarako eragile izateko. 2024-2025 programazioa aurkeztu ondoren, liburuxka banatuko da etxez etxe, azken urteetan egin izan den moduan, eta horrela postontzi guztietara helduko da.

*El 19 de septiembre a las 11:00 en el local Lezeaga Aretoa de Laudio los ayuntamientos de la comarca, la Cuadrilla de Ayala y la Diputación Foral de Álava presentarán la programación del curso 2024-2025 de la escuela de empoderamiento Laia Eskola. Como en años anteriores, las actividades organizadas versarán sobre feminismo, la redefinición de la cultura, la salud y la violencia machista. El programa al completo llegará a los buzones.*

BERDINTASUNA · IGUALDAD

## Luiaondon horma irudi berria



Ekainaren 13an, eta Luiaondoko Aste Kulturalaren edizio berriaren barruan, berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko mural izugarri koloretsua margotu zuten elkarlanean hainbat lagunek. Berez, egitasmoa Aiarateka Elkarteak, Luiaondoko Administrazio Batzarrak eta Udal Berdintasun Sailak sustatu zuten eta adin ugariro herritarrek parte hartu zuten, brotxa hartuta eta Dorre kaleko horma irudia amaitzeko bere ekarpena eginda.

Ekimena ez da isolatua izan, aspalditik asmoa baita urtero Aiarako herrietan muralak egitea, berdintasunaren eta aniztasunaren mezua horma-irudien bidez zabaltzen jarraitzeko, bestelako euskarriak ere baliatzen diren moduan.

*El 13 de junio, dentro de la Aste Kulturala de Luiaondo, numerosos vecinos y vecinas del pueblo de distintas edades contribuyeron a pintar un colorido mural en favor de la igualdad y la diversidad. La iniciativa fue impulsada por la asociación Aiarateka, el servicio municipal de Igualdad y la Junta Administrativa local. La actividad no constituye una excepción, ya que hace años que se promociona la creación de estos murales en Ayala.*

KULTURA · CULTURA

## Gaztelekua laster irekita berriro



Luiaondon kokatuta dagoen Aiarako Gaztelekuak bere jarduera abiatuko du berriro urrian, ostiral eta larunbatetan 18:00etatik 21:00ak arte eta igandetan 17:00etik 20:00ak arte. 12 eta 16 urte bitarteko aiararrei begirako eskaintza antolatuko dute, aurreko ikasturtean bezala. Ateak iaz ireki zituzten estreinako aldiz eta izandako emaitzen balorazioa oso ona izan da orain arte. Astebururo egon dira 10 eta 15 erabiltzaile arteko taldeak eta parte hartzea areagotu da, gainera, asteburu euritsuetan. Hezitzaile bat dago uneoro tokian eta ekintzak bideratu ez ezik, gazteekin eurekin adosten dira egitarauko hainbat hitzordu ere. Eta ez hori bakarrik, logoa edota nola atondu eremua herriko nerabeekin erabaki zuten.

*El Gazteleku da Ayala, ubicado en Luiaondo, comenzará su segundo curso en octubre. De igual manera que en el anterior ejercicio, abrirá sus puertas los viernes y sábados de 18:00 a 21:00 y los domingos de 17:00 a 20:00. Este espacio dirigido a jóvenes de entre doce y dieciséis años cuenta en todo momento con una educadora y en su primer año de estreno ha tenido una notable asistencia que se ha incrementado en los días lluviosos.*

MUGIKORTASUNA · MOVILIDAD

## Autobús a la UPV de Leioa



El Ayuntamiento de Ayala, ante la petición de un grupo de familias cuyos hijos e hijas van a estudiar en la Universidad Pública de Leioa, ha trabajado en verano para ayudar en la organización de un autobús que transcurra por el municipio hacia el centro universitario. Sin embargo, el reducido número de personas matriculadas dispuestas a utilizar el autobús (menor de una decena), su disparidad de horarios, la existencia de los bonos de transporte gratuitos ferroviarios, y la falta de coordinación en este ámbito entre las Diputaciones de Álava y Bizkaia han hecho imposible la iniciativa. El consistorio seguirá trabajando en ello, y mientras tanto anima a la ciudadanía a hacer uso de la aplicación *Kudea Go!* para esta clase de desplazamientos.

*Aiarako Udala lanean aritu da udan Leioako Unibertsitatean matrikulatuta dauden ikasleentzako autobusa antolatzen. Ordea, horien kopuru murrizak eta ordutegi ezberdinak izateak, doako tren garraioak eta Foru Aldundien koordinazio gabeziak arlo horretan, ez dute ahalbidetu helburua lortzea. Hala ere, lanean jarraituko dute eta, bitartean, Kudea Go! aplikazioa erabiltzea proposatu dute.*

## Kudea Go!, una aplicación en sintonía con la agenda sostenible



# AGENDA 2030

El Ayuntamiento de Ayala está plenamente comprometido con la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible que plantean las Naciones Unidas. Así, uno de los retos que este documento propone es trabajar la movilidad sostenible y, consecuentemente, reducir el número de desplazamientos, emisiones de CO2 y contaminación. En esa línea y teniendo en cuenta la demografía dispersa con la que cuenta el municipio, el consistorio ha puesto en marcha la aplicación telefónica *Kudea Go!*

Aunque se puede descargar ya, esta herramienta tendrá su presentación pública este mismo mes y la institución local informará debidamente a través de sus distintas redes sociales. *Kudea Go!* da información sobre todos los transportes existentes en el municipio y permite compartir vehículo aprovechando los viajes de las personas usuarias que deciden que otras personas del municipio puedan compartir los desplazamientos que ellas hacen. Teniendo en cuenta el elevado uso del transporte privado en la localidad, este recurso es una puerta abierta a disminuir el número de viajes haciendo que aquellas personas que no tengan transporte optimicen los viajes que se realicen.

*Aiarako Udalak konpromiso osoa du Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin. Horrela, dokumentu honek proposatzen duen erronketako bat mugikortasun iraunkorra lantzea da, eta, ondorioz, desplazamenduen kopurua, CO2 isuriak eta kutsadura murriztea. Ildo horretan, eta udalerrriak duen demografía sakabanatua kontuan hartuta, Udalak Kudea Go! telefono aplikazioa jarri du abian. Dagoeneko deskarga daitekeen arren, tresna honen aurkezpen publikoa hilabete honetan bertan izango da eta Udalak bere sare sozialen bidez dataren berri emango du. Kudea Go!-k udalerrian dauden garraio guztiei buruzko informazioa eta ibilgailua partekatzeko aukera ematen ditu, udalerriko beste pertsona batzuek egiten dituzten joan-etorriak partekatzea erabakitzen duten erabiltzaileen bidaiak baliatzeko. Herrian garraio pribatuaren erabilera handia dela kontuan hartuta, bidaiakopurua murrizteko atea da aplikazioa.*

## Ibaguengo kiroldegiak utzitako zuloa behin beteta, etorkizunera begira



2009an lanak egin egin ziren Etxaurren ikastolaren ondoan, Ibaguenen, kiroldegi bat eraikitzeko. Ordea, eraikinaren hormetan arrakalak agertu ondoren, eraitsi egin behar izan zen egitura. Hurrengo legegintzaldian, aldaketa politikoarekin, proiektu hori ezetsi egin zen, eta, orduetik, espazio horretan zulo bat geratu zen, erabiltzeko aukera gutxiarekin.

Legealdi honen hasierarekin zulo hori bete da, herritarren erabilerarako berreskuratzeko. Berez, tokia Ibaguengo kirol pista, igerilekuen eta futbol zelaiaren ondoan dago. Etorkizunari egira, gune horren zati bat Etxaurren Ikastolari lagako zaio, laster proiektatuko den klima inklusiboaren aldeko jolastokia handitzeko.

Gainerako espazioari dagoenez, dauden instalazioekin gune berri bat sortzea da Udalaren asmoa. Helburua Aiarako herritarrek erabiltzeko kirol-eta jolas-gune bat egitea da. Irailetik aurrera hasiko da tokiko erakundea horretan lanean. Horrela, eremu hori diseinatzeko herritarrek eskaerak eta iradokizunak aurkezteko epea irekiko dute, biztanleriaren ideiak jasotzeko, lantzeko eta gauzatzeko aukerak aztertzeko. Hortaz, interesa duten aiararrek adi egon daitezke euren ekarpenak egin ahal izateko.

*En el año 2009 se realizó una excavación junto a Etxaurren Ikastola para la edificación de un polideportivo. Durante su construcción las paredes del edificio se desplazaron y hubo que derruirlo. En la siguiente legislatura, con el cambio político, el proyecto fue desestimado y desde entonces en ese espacio había quedado un agujero. Con el comienzo de esta legislatura se ha procedido al relleno del lugar con el objetivo de recuperarlo para el uso ciudadano. El recinto está junto a la pista deportiva de Ibaguen, las piscinas y el campo de fútbol. Parte de este espacio será cedido a Etxaurren Ikastola para la ampliación del patio climático inclusivo que se proyectará próximamente. El resto del espacio será integrado en las instalaciones existentes. Se trata de crear un espacio deportivo y recreativo para la ciudadanía. A partir del mes de septiembre se abrirá un periodo para la aportación de sugerencias e ideas en el diseño de ese espacio.*

## Redes sociales municipales



El Ayuntamiento de Ayala dispone de varios canales de comunicación más allá de la propia publicación Saraube. Así, ofrece varios perfiles en plataformas y aplicaciones como WhatsApp, Instagram, X (Twitter) y Facebook. Para incorporarse a la lista de difusión de Whatsapp, es preciso ponerse en contacto con el número de teléfono 615 788 146 y escribir la palabra *alta*. Si en algún momento se desea dejar de recibir novedades, basta con enviar otro mensaje con la palabra *baja*. Para seguir la actividad municipal a través de Facebook, el perfil a elegir es *aiarako.udala*, en la red social X (antes Twitter) el usuario que se debe seguir es *@aiaraudala*, el mismo que en Instagram. En todos ellos se da buena cuenta de iniciativas y propuestas culturales o deportivas en Ayala.

*Aiarako Udalak hainbat komunikazio-kanal ditu Saraube argitalpenaz gain. WhatsAppeko hedapen-zerrendan sartzeko, 615 788 146 telefono-zenbakira idatzi behar da eta alta hitza adierazi. Zerrenda uzteko, baja hitza idaztea nahikoa da. Bestalde, Udalaren jardura Facebook bidez jarraitzeko, aiarako.udala da aukeratu beharreko profila. Aldiz, X sare sozialean (lehen Twitter) aiaraudala da jarraitu behar den erabiltzailea, Instagramen ere.*

JENDARTEA · SOCIEDAD

# IKASTAROAK CURSOS 2024-2025



## IKASTAROAK URRIAREN 7ko ASTEAN HASIKO DIRA

**Izena eman:** Udaletxean edo [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) web-orriko Egoitza Elektronikoa.

**Epeak:** Udalerrian erroldatuak, irailaren 2tik 10era, biak barne.

Erroldatu gabeak, irailaren 11tik 13ra, biak barne.

Ez da epez kanpoko inskripziorik onartuko. Inskripzioen ordena errespetatuko da, erroldatuak lehenetsita.

Patinaje-ikastaroan adin txikikoak lehenetsiko dira.

**Tarifa murriztuak:** Langabezia Txartela edo Ikasle Txartela aurkeztu beharko da.

## LOS CURSOS COMENZARÁN LA SEMANA DEL 7 de OCTUBRE

**Inscripción:** En el ayuntamiento o en la Sede Electrónica de la web [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus).

**Plazos:** Personas empadronadas en el municipio, del 2 al 10 de septiembre, ambos incluidos.

No empadronadas en el municipio, del 11 al 13 de septiembre, ambos incluidos.

No se admitirán solicitudes fuera de plazo. Se respetará el orden de inscripción, dando prioridad a las personas empadronadas.

En el curso de patinaje tendrán prioridad las personas menores de edad.

**Tarifas reducidas:** Será necesario presentar la Tarjeta del Paro o el Carnet de Estudiante.

	IKASTAROA CURSO	TOKIA LUGAR	ADINA EDAD	EGUNAK DÍAS	ORDUTEGIAK HORARIOS	TARIFA TARIFA	TARIFA MURRIZTUA TARIFA REDUCIDA
LANTENO	ALTZARIAK BERRITZEA Restauración de muebles	ESKOLA ZAHARRAK Antiguas escuelas	+16	OSTIRALAK Viernes	16:00-19:30	153,00 €	122,40 €
	MANTENTZE GIMNASIA Gimnasia de mantenimiento		+16	AL. - AZ. Lunes-miércoles	18:00-19:00	90,00 €	72,00 €
	PILATES I		+16	AR. - OG. Martes-jueves	20:15-21:15	90,00 €	72,00 €
IZORIA	ILARA DANTZAK Bailes en línea	TXOKOA	+16	OSTIRALAK Viernes	19:00-20:30	67,50 €	54,00 €
ARESPALDITZA	YOGA 1	GIZARTE ZENTROA Social	+16	AR. - OG. Martes-jueves	18:00-19:00	90,00 €	72,00 €
	YOGA 2		+16	AR. - OG. Martes-jueves	19:00-20:00	90,00 €	72,00 €
	JAR ZAITEZ FORMAN Ponte en forma		+16	AL. - AZ. Lunes-miércoles	18:45-19:45	90,00 €	72,00 €
	ADINEKOENTZAKO GIMNASIA Gimnasia para mayores		+60	ASTELEHENAK Lunes	11:00-12:00	ERROLDATUENTZAT DOHAINIK Gratuito para empadronadas/os	
	INGELES LUDIKOA	LUDOTEKA	+2020 <sup>an</sup> jainak	OSTEGUNAK Jueves	17:30-18:30	45,00 €	
	ESKULANAK Manualidades	EMAKUMEEN GELA	+16	ASTEAZKENAK Miércoles	16:30-18:30	90,00 €	72,00 €
	PATINAJEA	KANTXA ESTALIA Cancha cubierta	+2019 <sup>an</sup> jainak	LARUNBATA Sábados	12:00-13:00	45,00 €	36,00 €
LUIAONDO	ORRATZ ETA EHOZIRI LANAK Labores de aguja y bolillos	ESKOLA ZAHARRAK Antiguas escuelas	+16	ASTEARTEAK Martes	16:30-19:30	135,00 €	108,00 €
	SORMENEZKO JOSKINTZA Costura creativa		+16	ASTELEHENAK Lunes	16:30-18:30	90,00 €	72,00 €
	ADINEKOENTZAKO GIMNASIA Gimnasia para mayores	GIZARTE ZENTROA Social	+60	AL. - AZ. Lunes-miércoles	09:30-10:30	ERROLDATUENTZAT DOHAINIK Gratuito para empadronadas/os	
	JAR ZAITEZ FORMAN Ponte en forma		+16	AL. - AZ. Lunes-miércoles	20:15-21:15	90,00 €	72,00 €
	PILATES I		+16	AR. - OG. Martes-jueves	17:45-18:45	90,00 €	72,00 €
	PILATES 2		+16	AR. - OG. Martes-jueves	18:45-19:45	90,00 €	90,00 €
	PATINAJEA	KANTXA ESTALIA Cancha cubierta	+2019 <sup>an</sup> jainak	LARUNBATAK Sábados	10.30-11:30	45,00 €	36,00 €
	INGELES LUDIKOA	LUDOTEKA	+2020 <sup>an</sup> jainak	OSTIRALAK Viernes	17:30-18:30	45,00 €	

## EUSKARA

## Igandek euskaraz eta familian



24 Elkarteak Aiarako Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Igande Arratsaldeak Familian ekimena itzuliko da irailean, ikasturte berriarekin batera. Zehazki, hitzordua hilaren 22an izango da Arespalditzako udalbatza aretoan, eta saioa 17:00etan hasiko da. Jarduera Alberto Bargas ipuin kontalari bilbotarrak abiatuko du. Umeentzako kontakizunak izango ditu hizpide eta, ondoren, ohiko askaria eskainiko dute antolatzaileek. Amaitzeko, eskulan tailerra egingo dute gurasoek eta txikienek elkarrekin aisialdia partekatu dezaten. Aspaldi abiatu zen egitasmonek euskara dauka ardatz eta hizkuntza hori modu gozoan eta familian bizitzea du helburu. Irailetik maiatzera arte luzatuko da, eta abenduko saioa salbu, guztiek daukate egitura bera: ikuskizuna, askaria eta eskulana.

*La iniciativa Igande Arratsaldeak Familian de la asociación 24 Elkarte, que tiene por objeto crear un ambiente euskaldun para disfrute de toda la familia, volverá el 22 de septiembre a las 17:00 al salón de plenos del Ayuntamiento de Ayala, en Respaldiza. Comenzará la actividad el cuentacuentos Alberto Bargas y seguidamente ofrecerán una merienda. La jornada concluirá con un taller de manualidades para que participen en él todas y todos los presentes.*

## EUSKARA

## Ikasturte berrian euskara hobetzeko aitzakiarik ez



Ohi bezala, Aiarako Udalak saiakera egingo du herritarrek udalerrian bertan ikas dezaten euskara, inora joan behar izan gabe. Horretarako, nola ez, ikasleen gutxieneko kopurua beharrezkoa da. Hori dela medio, tokiko erakundeak izena emateko epea ireki zuen irailaren 3an 25era bitartean. Interesdunek [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) webgunean topatu dezakete inskripzio-orria eta, behin beteta, egoitza elektronikoan edota udal bulegoetan Arespalditzan (asteleheneetik ostiralera, 9:00-14:00), edo Luiaondon (astelehena 9:00-12:00, eta asteazkena 12:00-15:00) utzi. Izena emandako guztiei deituko diete, dagokien informazioa emateko.

Ikastaroak 165 orduko iraupena izango du eta, beharrezkoa izanez gero, maila probak egingo dituzte klase anitzetan banatzeko. Gogoratu beharra dago AEK Euskaltegiari ordaindutako matrikula osoa berreskuratzeko aukera emango duela Udalak hurrengo urtean beka bidez, ezarritako baldintzak beteta, jakina. Dena den, euskaraz bizitzeko tresna gehiago egon badaude Aiaran. Esaterako, 607 673 744 telefonoaren bitartez, Gurasolagun ekimena -familian ekintzak euskaraz egiteko- edota Berbalagun egitasmoa -euskaraz mintzatzeko taldeak-, baita Igande Arratsaldeak Familian programa ere.

*Como viene siendo habitual, el Ayuntamiento de Ayala intentará que los y las vecinas aprendan euskera en el propio municipio sin tener que desplazarse. Para ello, como no podía ser de otra manera, es necesario un número mínimo de participantes. Por ello, la entidad local abrió el plazo de inscripción del 3 hasta el 25 de septiembre. Las personas interesadas pueden encontrar la hoja de inscripción en [www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus) y una vez cumplimentada, deben entregarla en la sede electrónica o en las oficinas municipales en Respaldiza (de lunes a viernes, 09:00-14:00), o en Luiaondo (lunes 09:00-12:00, y miércoles 12:00-15:00). Llamarán a quienes se hayan inscrito para facilitarles la información correspondiente. El curso tendrá una duración de 165 horas y se realizarán pruebas de nivel si fuera necesario. Hay que recordar que el Ayuntamiento permitirá recuperar la totalidad de la matrícula abonada al Euskaltegi AEK el próximo año mediante beca, cumpliendo, por supuesto, los requisitos establecidos.*

KULTURA · CULTURA

## Sorlasean, euskaraz antzeztu eta euskaraz sortu



Haur eta gazteak arte eszenikoen mundua ezagutzeko proiektua da *Sorlasean, sortu jolasean!* Saio hauetan haiek izango dira protagonista, subjektu aktibo, eta haien ideietatik abiatuta, proposamen eszeniko bat garatuko dute. Horretarako, antzerkigintzan murgilduko dira, eta jolasak eskaintzen dituen bide eta esperientzia baliatuko dituzte prozesua gauzatzeko. Antzerkigintzaren oinarriko teknikak eta kontzeptuak ezagutzeaz gain, gorpuz adierazpena, ahotsaren erabilera, eremu afektiboa, euskara eta beste horrenbeste esparru landuko dituzte.

Josune Garcia de Bikuña ipuin kontalariak eta hezitzaileak bideratuko du egitasmoa 2012 eta 2018 urteen artean jaiotako gazteekin. Ostegunetan izango dira saioak, 18:00etatik 19:00ak bitartean eta urrian hasiko da ekimena, maiatzean amaitzeko. 36 euro balioko du izena emateak eta irailaren 11tik 18ra arte egongo da aukera horretarako Aiarako udaletxean.

Josune Garcia de Bikuñak musika, dantza, antzerki eta narrazioan formakuntza zabala jaso du eta talde izaera eta kohesioa indartzeko dinamikak proposatuko ditu, baita mugimenduari lotutako esperientziak, norberaren autokontzeptua indartzeko. Dena euskaraz, gainera.

*Sorlasean, sortu jolasean! es un proyecto para que los y las jóvenes se introduzcan en el mundo de las artes escénicas. En sus sesiones ellos y ellas serán protagonistas, sujetos activos, que a partir de sus ideas desarrollarán una propuesta escénica. Para ello, se sumergirán en el mundo del teatro y utilizarán el camino y la experiencia que ofrece el juego para llevar a cabo el proceso. Además de conocer las técnicas y conceptos básicos del teatro, trabajarán la expresión corporal, el uso de la voz, el ámbito afectivo, el euskera y otros tantos temas. La cuentacuentos y educadora Josune García de Bikuña, con más de 20 años de experiencia en el área de la pedagogía, será la encargada de guiar la iniciativa participativa con jóvenes nacidos y nacidas entre los años 2012 y 2018. Los ensayos tendrán lugar los jueves, de 18:00 a 19:00 y comenzarán en octubre para concluir a finales de mayo, posiblemente con una obra. La inscripción costará 36 euros y se podrá realizar del 11 al 18 de septiembre en el ayuntamiento de Ayala.*

## Kultura digitaleko tailerrak



Aiarako Kuadrillak kultura digitalari buruzko 10 tailer antolatuko ditu udazkenean haren parte diren bost udalerrietan. Horietako bi, Aiaran, Luiaondoko Gaztelekuan. Lehena, irailaren 26an izango da 17:00etan: Gamer Gela, hain zuzen. Bestea, Errealitate Birtuala, urriaren 24an, toki berean. Kuadrillako gainontzeko udalerrietan, Adimen Artifiziala, 3D Inprimagailuak, Arduino Robotika, Gamer Gela, Tik-Tok, Musika Aplikazioak, Podcast eta Stop Motion tailerrak egingo dira. Ez galdu kultura digitalean murgiltzeko aukera hau. Tailer guztiak dohainik dira eta plazak mugaturik daude. Izena emateko, jar zaitez 677 566 245 telefonoarekin harremanetan (WhatsApp bitarteko mezua nahikoa da), edo cayala.euskara @ayto.araba.eus helbidera idatzi.

*La Cuadrilla de Ayala está organizando talleres gratuitos de cultura digital para los próximos meses. Dos de ellos, tendrán lugar en el Gazteleku de Luiaondo: el 26 de septiembre, Gamer Gela, y el 24 de octubre, Errealitate Birtuala. Ambas actividades comenzarán a las 17:00. Para inscribirse, basta con enviar un mensaje a través de la aplicación WhastsApp al número de teléfono 677 566 245 o bien un email al correo electrónico cayala.euskara@ayto.araba.eus*

ELKARRIZKETA · ENTREVISTA



## AIARATEKA ELKARTEA

ZAIRA DEL RIOK, LORENA MARTINEK, AMAIA GOMEZEK, IRATXE GARCIAK ETA MARTA FERNANDEZEK OSATZEN DUTE AIARATEKA ELKARTEA. GUZTIAK DIRA AMAK ETA IAZ EKIN ZIOTEN TALDEA SORTZEARI UDALERRIA BIZIBERRITZEKO ETA KOMUNITATE SENTIMENDUA HAUSPOTZEKO, BEREZIKI, UMEENTZAKO EKINTZAK ANTOLATUTA.

### ¿Cómo surgió Aiarateka?

Tomando el café después de dejar a los niños y niñas en el autobús del colegio. Empezamos a pensar en qué se podía hacer para ellos y ellas y se nos ocurrieron muchas actividades. Todas tenemos niños y niñas de cinco años -también menores- y veíamos que hay oferta de ocio, pero sobre todo en los pueblos de al lado. La idea es organizar actividades diferentes y dinamizar a gente de todas las edades. Uno de los objetivos es que la población de la propia localidad sea protagonista. También hemos traído profesionales, como Ane Gebara, pero una de las intenciones es que vecinos y vecinas propongan lo que sepan o les guste. Es lo ideal, más cohesión y más económico.

### Hitz egin ostean, nola egin zenuten urratsa elkar-tea sortzeko?

Oso aspergarria izan zen, paper mordoa bete behar izan genituen elkar-tea bilakatzeko eta bi hilabete behar izan genituen, azarotik abendura arte. Taldea osatzeko ideia erraz agertu zen, guztiok konpromisoa hartu baikenuen eta egun batetik bestera ekin genion. Animatuak geunden eta berotu ginen helburuarekin. 24 kontzeju dituen udalerrri batean jendea batzea zaila da, hortaz, aprobetxatu nahi ditugu eskura ditugun baliabideak.

### ¿Qué acogida habéis tenido?

Al principio existía una cierta reticencia, ya que de las

*“Ninguna de las fundadoras de la asociación somos originarias de Ayala, pero todas hemos echado raíces aquí”.*

cinco personas que hemos fundado la asociación, ninguna es originaria de Ayala, pero todas hemos echado raíces aquí. Nos sentimos ayalesas y queremos que eso siga siendo así. Al principio parecía que iba a ser difícil mover a la gente, pero en las actividades hechas hasta ahora nos ha sorprendido muy positivamente la participación y las felicitaciones de quienes parecían más reticentes al inicio.

#### **Zer egin duzue orain arte?**

Gogor hasi gara. Lehen jarduera Ane Gebara ipuin kontalaria izan zen. Gero guk liburuak markatzeko txartelen tailerra deitu genuen. 25 familia batu ginen. Horrez gain, Luiaondoko Aste Kulturala antolatu dugu berriro. 2019ra arte edo egin zuten, baina utzi zioten egiteari, nekatuta baitzeuden. Proposatu genuen Administrazio Batzarrean eta boluntario gisa aurkeztu ziren eta ekonomikoki babestu zuten egitasmoa. Eromen hutsa izan zen, baina oso ondo atera zen. Murgako sanjoanetan ere lagundu genuen.

#### **Tenéis también un proyecto en la Residencia Alday.**

Estuvimos allí y en primer lugar propusimos un intercambio de conocimientos, para saber cómo cultivaban ellos y ellas. Luego residentes, usuarios y usuarias del centro de día, niños y niñas y nosotras fuimos al huerto a plantar

*“Aiaratekak, guretzat, esan nahi du batura puntua, zeinera elkartzeko jotzen duzun. Hori da eman diogun zentzua.”*

puerros. En la actividad nos encontramos tres generaciones distintas y fue muy bonito, la verdad. Queremos seguir con los cafés intergeneracionales. El objetivo es mantener un acto mensual en la residencia.

#### **Ikasturte honetarako zer prestatuko duzue?**

Alday nagusien egoitzan jarduera bat hilero. Horrez gain,

hilean behin, igande batean, kirol ekintza bat, kulturarekin uztartuta. Kanpaldi bat ere zor dugu eta Arimen Gaurako zerbait bultzatuko dugu ohitura horren nondik norakoak ezagutzeko Euskal Herrian.

#### **¿Qué ha supuesto para vosotras Aiarateka?**

Mucho trabajo, pero también resultados muy bonitos. Hemos pasado momentos muy estresantes, pero lo hemos disfrutado bastante. A medida que le cojamos la medida, creo que vamos a trabajar más relajadas. Pero nos ha valido para ver que esta necesidad no la vemos solo nosotras, hay más gente que ha respondido y esperamos que la participación se incremente. De hecho, la relación con

*“El objetivo es ser muchas más personas. Cada cual donde se vea y de la manera que quiera. La más sencilla es asistir a las actividades. También se puede ayudar a montar, a recoger... Son formas de contribuir. Por supuesto, se puede dar el paso a asistir a las reuniones.”*

el Ayuntamiento y la Junta ha sido fructífera y nos ha ayudado a expandir nuestra red.

#### **Zer esan nahi du Aiarateka hitzak?**

Batura puntua. Toki bat zeinera elkartzeko jotzen duzu. Hori da ematen diogun zentzua.

#### **¿Cómo puede la gente de Ayala unirse a Aiarateka?**

En marzo fue nuestra primera reunión y comentamos que la asociación la empezamos nosotras cinco, pero que el objetivo es ser muchas más personas. Cada cual donde se vea y de la manera que quiera. La más sencilla es asistir a las actividades. También se puede ayudar a montar, a recoger... Son formas sencillas de contribuir y que nos unen. Y quien quiera dar un paso más, pues puede venir a las reuniones para organizar la programación. Además, tenemos unas hojas de inscripción y el teléfono móvil (688 78 36 67), también el perfil de Instagram.

**BOTIKAK · FARMACIAS**

**IRAILEKO GUARDIAK GUARDIAS SEPTIEMBRE**

1 YARZA	17 PEREDA
2 FERNANDEZ	18 CACERES
3 IBARROLA	19 YARZA
4 PEREZ	20-22 FERNANDEZ
5 HERNANDEZ	23 CACERES
6-8 PEREDA	24 PEREZ
9 CACERES	25 HERNANDEZ
10 YARZA	26 PEREDA
11 FERNANDEZ	27-29 IBARROLA
12 IBARROLA	30 YARZA
13-15 PEREZ	
16 HERNANDEZ	

**URRIKO GUARDIAK GUARDIAS OCTUBRE**

1 FERNANDEZ	17 IBARROLA
2 IBARROLA	18-20 YARZA
3 PEREZ	21 FERNANDEZ
4-6 HERNANDEZ	22 IBARROLA
7 PEREDA	23 PEREZ
8 IBARROLA	24 HERNANDEZ
9 YARZA	25-27 PEREDA
10 HERNANDEZ	28 CACERES
11-13 CACERES	29 YARZA
14 PEREZ	30 FERNANDEZ
15 HERNANDEZ	31 IBARROLA
16 PEREDA	

**AZAROKO GUARDIAK GUARDIAS NOVIEMBRE**

1-3 PEREZ	18 YARZA
4 HERNANDEZ	19 FERNANDEZ
5 PEREDA	20 IBARROLA
6 CACERES	21 PEREZ
7 FERNANDEZ	22-24 HERNANDEZ
8-10 YARZA	25 PEREDA
11 IBARROLA	26 CACERES
12 PEREZ	27 YARZA
13 HERNANDEZ	28 FERNANDEZ
14 PEREDA	29-30 IBARROLA
15-17 CACERES	

**ABENDUKO GUARDIAK GUARDIAS DICIEMBRE**

1 IBARROLA	16 YARZA
2 PEREZ	17 PEREDA
3 HERNANDEZ	18 FERNANDEZ
4 YARZA	19 IBARROLA
5 CACERES	20-22 PEREZ
6-8 PEREDA	23 HERNANDEZ
9 FERNANDEZ	24-25 YARZA
10 IBARROLA	26 CACERES
11 PEREZ	27-29 FERNANDEZ
12 HERNANDEZ	30 PEREZ
13-15 CACERES	31 IBARROLA

**GARRAIOA · TRANSPORTE**

**AUTOBUSA AUTOBÚS**

IRTEERA: Artziniega      IRTEERA: Okondo  
 SALIDA: Artziniega      SALIDA: Okondo

IBILBIDEA RUTA: Artziniega, Lanteno, Menagarai  
 Arespalditza, Murga, Izoria, Amurrio, Laudio,  
 Okondo.

**ARTZINIEGA-OKONDO      OKONDO-ARTZINIEGA**

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes	Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes
6:30 15:20	07:00 16:20
7:45 16:15	08:35 17:10
9:35 18:50	10:35 17:50
11:35 20:50	13:25 19:50
14:25	15:20 21:50

Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos	Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos
9:20	8:20
14:20	13:20
16:25	15:45
21:25	20:25

**TRENA TREN**

**URDUÑA-BILBO (LUIAONDO, RENFE)**

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes	Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos
8:13	10:33
10:53	13:33
15:43	16:33
16:53	18:38
18:33	21:38

**BILBO-URDUÑA (LUIAONDO, RENFE)**

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes	Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos
8:18	11:38
10:18	13:38
13:28	18:08
18:20	20:38
19:58	21:38

\*Trenen ordutegi guztiak [www.renfe.com](http://www.renfe.com)  
 \* Todos los horarios de trenes [www.renfe.com](http://www.renfe.com)

**TELEFONOAK · TELÉFONOS**

ANBULATORIOA.....945 025 009  
 AMBULATORIO LUIAONDO...945 393 864  
 AMBULATORIO RESPALDIZA...945 399 332

UDALETXEA..... 945 399 013  
 AYUNTAMIENTO

AIARAKO KUADRILA..... 945 399 122  
 CUADRILLA DE AYALA  
 AIARATUR.....945 034 930

AIARAKO SUHILTZAILAK..... 94 672 6565  
 BOMBEROS DE AYALA  
 ETXAURREN IKASTOLA.....945 399 287

ERTZAINZA(LAUDIO) ..... 94 406 3860

GENERO INDARKERIAREN  
 BIKTIMEN ARRETA  
 ZERBITZUA.....900 180 414

GALDAKAO OSPITALEA..... 944 007 000  
 HOSPITAL DE GALDAKAO

RENFE.....902 320 320  
 RENFE

LA UNIÓN AUTOBUSAK.....945 264 626  
 AUTOBUSES LA UNIÓN

BIZKAIBUS.....902 222 265  
 BIZKAIBUS

TAXI.....678 351 921  
 TAXI A DEMANDA..... 945 890 393

ARABAKO FORU ALDUNDIA... 945 181818  
 DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA

SARAUBE ALDIZKARIA..... 722 134 322  
 REVISTA SARAUBE

Las guardias de 2024 pueden estar sujetas a ligeros cambios/ 2024ko guardiek aldaketa txikiak izan ditzakete



**Whatsapp municipal**

**Aiarako egunerokotasunaren berri izateko, 290 pertsonak osatzen duten WhatsApp taldera batu: 615 788 146.**

*Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.*

# UDA IRUDITAN EL VERANO EN IMÁGENES



